

Iñaki Zarraoa alkateari:

Gutun honekin batera aurkeztu ditugun argazkietan nabaria denez asko dira Getxoko kaleetan euskaldunon hizkuntz eskubideei iseka egiten dieten errotuluek. Argi eta garbi eskatzen dugu plaka, bideseinale eta errotulu hauen berehalako desagertzea:

- "Calle Monte Gorbea", Gorbeia kalean, Harino Panadera ogitegiaren eta Gobelaurre liburudendaren gainean.
- "Calle particular de Club", Klub kalean, Manus Burger tabernaren gainean.
- "Calle Barria", Kalebarrian, Rollan arropadendaren gainean.
- "Calle de Paulino Mendivil", Paulino Mendibilen, Pepitto Grillo eta Happy-happy denden artean.

Beste bi kasu hauetan, gainera, berehalako desagertzea eskatzeaz gain, aspaldi salatu genituela esan behar dugu. Azken aldia, 2001eko irailaren 26ko Europako hizkuntz gutxituen egunari begira euskararako udal teknikariari bidali genion txostenean:

- "De 8 a 20 h. Excepto carga y descarga", Kale Nagusiko 17. atariaren aurrean.
- "Laborables de 7 a 21 h. Excepto Correos", Areetako postetxearen aurrean.

Honako bost bideseinaleen kasua oso larritzat hartu dugu, Zugatzarte pasealekuaren 14. atariaren aurrean dagoen umeentzako parkearen errotulazio guztia erdara hutsean izateak txikitatik ume euskaldunei gizarte honetan beren hizkuntzak duen garrantzia erakutsiko baitie:

- "Parque de tráfico. Ciclistas menores de 10 años"
- "Ayuntamiento. Cuarto de socorro"
- "Teléfonos"
- "Aeropuerto"
- "Puente Vizcaya"

Errotulu honek guztiz kezkatuta utzi gaitu. Elebitasun hitza erabiltzen duenean, Udal honek zer esan nahi izango ote duen da gure kezka:

- "Xedea/Objetivo: Proyecto de mejora y ampliación de aceras en las calles Errotalde, Gobela, Gorbea, Urquijo y Avenida de Algorta. Aurrekontua/Presupuesto: 237,973,94E. Plazo de ejecución/Egikartitzeko epea: 5 meses. Kontratadun enpresa/Empresa contratista: U.T.E Arkifer. Getxoko Udala/Ayuntamiento de Getxo".

Gure uste apalean Bizkaiko Zubiaren inguruetan Foru Aldundiak egindako idatziak BFArekin negoziatzea eskatzen diogu Udalari:

- "Sólo puente", Bizkaiko Zubirako errepidean, Kaixo kafetegiaren aurrean.
- "Sólo puente", Bizkaiko Zubirako errepidean, Eduardo Koste kalearen 4. eta 6. atarien atzekaldean.

Kasu honetan eta nahiz eta errotulazio pribatua dela, Udalak errotulu hauen aferan eskua sartu behar duela uste dugu. Central Hispano eta Banco Santander erakundeek batzeak Santander Central Hispano banku berria sortu du. Baina, erakunde berri honen errotulazio eredu baina ez da guri interesatzen zaiguna: plaka erabat erdaldunak jarri dituzten bulegoetatik kanpo sukurtsalaren herria, udalherria, eta helbidea argitzeko. Gainera, finkatzea urte asko kostatu duena, alegia, Udalerriaren grafia ankartetik pasatu eta nahi duen eran jarri dute. Hemen bi adibide baina ez dugu aurkeztu baina ziur badirela bulego gehiago Getxon. Hemen aipatzen ditugun bulegoetako zuzendariei gutun bana (eranstean ditugu) eman diegu errotulazioa aldatzeko eskatuz. Dena den, Udalari eskatzen dugu bide berean lan egiteko:

- "Las Arenas. Guecho. C/Mayor, 23. Santander Central Hispano"
- "Las Arenas. Guecho. C/Mayor, 31. Santander Central Hispano"

Bukatzeke, honako bi kasu hauetan ez dugu jakin udalak jarritako plakak diren ala bizilagunek beraiek jarri dituzten. Lehenengo kasuan, aurrekoetan bezala, haien berehalako desagerpena eskatzen dugu. Bigarren aukera bada, Udalarari eskatzen diogu beste leku batzuetan egin den bezala auzokideekin negoziatzeko euskarazko errotulazioa jartzeko:

- "Muelle Tomas Olabarri nº 6-7-8", Tomas Olabarri kaian, SVI broker-en bulegoaren gainean.
- "Muelle Tomas Olabarri nº 9-10-11", etxaldearen bestaldean.

Errotulazio kontu hau ez da gertakari bakarti eta hutsala baizik eta Udalerrian euskarak pairatzen duen egoeraren isla. Azken urte hauetan Getxoko udalerrian, era apalean bada ere, euskarak aurrera egin du. Euskaldun gehiago daude, euskara gehiago entzuten da kalean eta euskalgintzaren eragileekin lotuta lan politiko batzuk ere egin dira bere alde. Euskara teknikariaren figura sortzea, kultura mailako ekitaldi euskaldunak laguntzea, euskara ikasteko bekak berreskuratzea, euskalduntzen ari diren eta euskaldunen arteko topaguneak eratzea, errotulu askoren aldatzea eta euskarazko komunikabideen suspertzea badira horren adibide.

Baina, egindakoa aitortzen dugun moduan euskara benetan hizkuntza ofiziala izateko falta dena ere ikusgai daukagu:

- @ Euskalduna izatea bermatzen ez duten ereduetan hiru urteko umeen %53'69 matrikulatu zituzten pasa den ikasturtean. Nagusiagoak diren ume eta gazteen artean datuak okerragoak dira.
- @ Lanbide Heziketan hainbat modulutan euskarazko lerrorik ez dago eta oztopoak daude sortzeko.
- @ Umeentzako eskaintza kulturala hein handi batean oraindik erdarazkoa da. Musika eskola, Fadura, Kultur Etxea... baino ez dira ikusi behar.
- @ Osakidetza zerbitzuek ez dituzte kontuan hartzen euskaldunon hizkuntz eskubideak.
- @ Euskaldunok atzeritar gisa tratatzen gaitu Neguriko Justizia Jauregiak. Epaileak, fiskalak eta langileen gehiengoak erdaldunak dira.
- @ Udal erregistroa bera erdaraz baino ez dabil.
- @ Kartzelan dauden getxotarren gutun, dei telefoniko eta bisitei euskaraz izatekotan maiz oztopoak jartzen zaizkie.
- @ Berezkoa eta koofiziala den gure hizkuntza arlo guztietan bigarren mailako hizkuntza da egun.
- @ Oraindik euskarak gure udalerrian erasoak jasaten ditu.
- @ Edozein euskara plangintzan oinarritutakoak diren urratsak (kaletegia eta bideseinalizazioaren euskalduntzeak) oraindik bukatzeke ditugu Getxon.

Honen aurrean, boluntarismoa, asmo onak eta diru apurrak hasiera bat badira ere, ez dira nahikoa. Euskarari lehentasunezko gai politiko izatea onartu behar zaio eta, era berean, euskaldunek eta euskarak dituzten eskubideak eta beharrak asetu behar dira. Horretarako tresna ezinbestekoa litzateke Getxon Euskara Plangintza. Plangintza hau guztion artean egin beharrekoa izango litzateke eta bertan, eratu gabe dagoen Euskara Batzordean, euskalgintza, bestelako gizarte eragileak, Udala eta udalerriko alderdi politikoek era antolatuan euskaldunon eskubideak betetzeko eta euskara zabaltzeko lehentasunak finkatu ostean neurriak hartuko litzateke.

Hori dela eta, Udal Gobernuari Euskara Plangintza baten diseinuaren lanak martxan jarri ahal izateko Euskara Batzordea sortzea eskatzen diogu. Bere lanak era onenean aurrera eramateko ezinbesteko baldintzak lirateke bertan euskalgintza, bestelako gizarte eragileak, Udala bera eta udalerriko alderdi politikoak parte hartzea sektore bakoitzak aukeratutako ordezkarien bidez eta erabakiak hartzeko ahalmena edukitzea.

Erromoko Euskal Herrian Euskaraz